


Euskal AEko eraikuntzako kostuek bere horretan iraun zuten 2007ko abuztuan

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko abuztua, 2006ko abuztuarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %5,0 gehitu ziren

2007ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea (%0,0) ez zen aldatu, aurreko hilaren aldean, eta abuztuko urte arteko tasa %5,0ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Abuztuan Eraikuntzako azpisektoreak egonkor iraun zuen (%0,0) eta Obra Zibilekoa %0,1 hazi zen; urte arteko tasak %5,1 eta %4,6 izan ziren, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera abuztuko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko abuztuan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); ezta ere lehengaien kostuak (%0,0).

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,0 igo zen Eraikuntzako lehengaien kostua eta %0,1 Obra Zibilekoa. Azken honen pisu erlatiboa txikiagoa da Eraikuntzarena baino. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek antzeko joerak izan dituzte baina indar ezberdinez: eraikuntzako lehengaien kostuak %5,8, hazi dira, eta obra zibilekoak, %5,3.

Abuztuan, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *energia elektrikoa* (%4,0), *beira* (%2,3), *ateratze agregakinak* (%0,6), *zementu artifiziala* (%0,5) eta *metalezko hoditeria* (%0,5), besteren artean. Aitzitik, beste lehengai batzuen prezioak jaitsi egin

dira, hala nola *petroliotik eratorritakoak* (%-1,9), *asfalto-produktuak* (%-1,5) *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-1,4), *leherkariak eta gasak* (%-1,1) eta *burdina eta altzairua* (%-0,5) lehengaienak besteak beste.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: beira (%24,6), metalezko hoditeria (%17,5), burdina eta altzairua (%14,6), eta zementu artifiziala (%6,7). Bestalde, urte batetik bestera (2006 abuztutik 2007ko abuztura) honako hauen lehengaien prezioak murriztu dira, nagusiki: asfaltozko produktuak (%-10,5), petrolioaren eratorriak (%-4,0), egiturak eta galdaragintza (-%0,9).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko abuztua.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	131,8	0,0	5,0	4,0
ERAIKINAK	131,8	0,0	5,1	4,0
OBRA ZIBILA	131,5	0,1	4,6	4,2
LEHENGAIEN KOSTUA	129,3	0,0	5,7	4,3
ERAIKINAK	129,6	0,0	5,8	4,2
OBRA ZIBILA	128,3	0,1	5,3	4,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp